

# 3.


## Jarraipen Txostena

### I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda



Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30





# AURKIBIDEA



**Jarraipen Txostena**  
**I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda**  
2019. urtea

# Agenda Euskadi Basque Country



# 2030


Euskadik bere egiten du Nazio Batuen 2030rako Agendaren erronka globala, Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartzearen bidez. Gure lurralderako ekintza-plan bat da, euskal eredu gisa planteatzen dena bai hazkunderako eta bai gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-ongizaterako; funtsezko zerbitzuak pertsona guztiei bermatzeko konpromisoa hartzen du, eta baita kalitate handiagoko enplegu aukerak sortzen dituen hazkunde jasangarritasunaren aldeko konpromisoa ere.

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda 2017-2020 aldian garatzen da, hau da, EAEko XI. Legegintzaldiaren Gobernu Programaren indarraldi berbera du, eta islatzen du noraino datozen bat programa hori eta beraren garapenera zuzendutako politika sektorialak Garapen Jasangarriaren 17 Helburuekin (GJH) lotutako helburu eta helmugekin, horien aldeko ekarpena islatzeaz batera. Era horretan, 2030 Agendaren espirituari erantzuten diogu, kontuan hartuta GJHak ez direla sortu zer egin behar dugun esateko, baizik eta lehenetasunak ezartzen laguntzen digun testuinguru unibertsal bat definitzeko, gure lurralde-errealitatea kontuan hartuta.

I. Euskadi Basque Country 2030 Agenda agenda egokigarri gisa landu da, hau da, egokitu egin daiteke beraren jarraipen eta ebaluazioaren ondorioz. Horregatik ezarri da jarraipen txosten bat egingo dela urtean, gobernantza-tresna eta -bide propioak erabiliz, beraren bitartez jasotzeko zer ekarpen egiten dien Euskadik 2030 Agendaren GJHak lortzeko xedez mundu mailan egiten diren ahaleginei eta lanari. Halaber, txostena izango da NBERen Garapen Jasangarriaren Helburuen aurrerapenari buruzko urteko txostenari Euskadik egiten dion ekarpena.



2019 ZENBAKITAN




Jarraian, 2019 urtean Garapen Jasangarriaren Helburu bakoitzaren inguruan egindako esku-hartze garrantzitsuenen **LABURPEN EXEKUTIBOA** aurkezten da.

Jarraipen txostena eskura dezakezu esteka honen bitartez:

[www.euskadi.eus/agenda-2030/jarraipena-2019](http://www.euskadi.eus/agenda-2030/jarraipena-2019)

\*Adierazleen bilketaren datazioan askotariko datak agertzen dira, adierazle bakoitzaren betekizun teknikoak eta erakunde estatistikoaren lantze-prozesuak kontuan hartzen dituelako.

# 1. HELBURUA



Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

HELMUGAK

6

PLANGINTZA-TRESNAK

3

EKIMEN LEGEGILEAK

1

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

JARDUERAK

6

PLANGINTZA-TRESNAK

1

EKIMEN LEGEGILEAK

1

## ADIERAZLEAK

- Pobrezia ekonomikoaren indizea (Arope)
- Pobrezia materialaren indizea (Arope)
- Lan-intentsitate txikiko familia-unitateak (Arope)

## DATUAK

- (2018) % 8,6
- (2018) % 3,2
- (2018) % 7,1

**1. Helmuga.** Pobrezia-egoerei erantzutea eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzearen alde eginez eta gizarte-bazterketako egoeren kronifikazioa eragotziz.

**2. Helmuga.** Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatzea, gehien behar dituzten pertsonen eskura iritsi daitezen, instituzioen arteko lankidetzeta eta datuen interkonexioa bultzatuz.

126

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta finkatu.

• **1. Jarduera.** 2019an 50 milioi euro bideratu dira kolektibo kalteberak gizarteratzeko eta laneratzeko programak sustatzera.

• **2. Jarduera.** Kalteberatasun kasuak detektatzeari buruzko lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu da Botere Judizialaren Kontseiluarekin eta Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDEL), familiak etxebizitzatik kaleratzen direnerako, gizarte-izaerako neurriak hartu ahal izateko.

**3. Helmuga.** Gizarte-larrialdietarako Laguntzak bermatzea, pobrezia energetikoa barne sartuta.

130

Gizarte-larrialdiko Laguntzak bermatu.

131

Hacer frente a la Pobreza Energética.

• **3. Jarduera.** Gizarte Larrialdietarako Laguntzak aurretik tramitatzea, bai aurreikusitako partida arrunta -23 milioi €- eta bai Udalek egiten duten gastu erantsia konpentsatzeko partida -4 milioi €-.

**4. Helmuga.** Etxerik gabeko pertsonen arreta eskaintzea.

132

Etxegabeak artatu.

• **4. Jarduera.** Lankidetzeta-hitzarmena, INE eta Eustat erakundeen artean, Euskal Autonomia Erkidegoko etxerik gabeko pertsonen arretarako zentroen estatistika egiteko.

**5. Helmuga.** Adostasun zabaleko gizarte-itun bat sustatzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren finantziaketa sendotzeko eta haren iraupena bermatzeko.

129

Gizarte-zerbitzuen sistema finkatu eta indartu.

• **5. Jarduera.** Adinekoentzako Bizitegi-zentroen Dekretua onartu da. Hor arautzen dira adinekoentzako bizitegi-zentroek bete behar dituzten betekizun materialak, funtzionalak eta pertsonalaren alorrekoak, Gizarte Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan aurreikusitako arabera, bizitegietan kalitatezko arreta-zerbitzuak jasotzeko eskubidea bermatzeko xedez.

**6. Helmuga.** Enplegarritasun zaileko pertsonen zuzendutako arreta optimizatzea, gizarte-zerbitzuen eta euskal enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzaren bitartez.

133

Gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu.

• **6. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak Arretarako Protokolo Orokorra adostu dute, beraren bitartez Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, Enplegu-Sistema eta diru-sarrerak bermatzeko sistema hobetzeko.

## Plangintza-tresnak

• **2018-2021 aldirako Etxebizitza Bazterkeriako Egoera Larrien Prebentzio eta Murrizketarako Euskal Estrategia (lehenago Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia zeritzona):**

Estrategiaren Jarraipen Batzordea, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, Foru-aldundiek, hiriburuek, Eudelek eta hirugarren sektoreko 3 erakundek osatuta, lehenengo Jarraipen-txostena aurkezten dute, urtebete bete ondoren, 9 lan-ardatzen helburuen betetzearen garapena positiboki baloratuz.

## Ekimen Legegileak

• **Diru Sarrerak Bermatzeari buruzko eta Gizarte Inklusiorako Legea aldatzeko Lege**

**Proposamena:** Eusko Legebiltzarrak, diru sarreren bermeari dagokionez, onartu du 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurrien Lege-proiektua Aldatzeko Proposamena kontsideratzea eta Lege-proiektua onartzea.

# 2. HELBURUA



Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country



20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

5

JARDUERAK

5

PLANGINTZA-  
TRESNAK

6

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Galdutako bizitza-urte potentzialak

(2018) 83,6 urte

• Obesitate-tasa

(2018) % 12,8

• Nekazaritza ekologikoko eremuak

(2018) 4.466 ha.



**7. Helmuga.** Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea.

**8. Helmuga.** Azpiegitura eta zerbitzu egokiak ematea landa-eremuei eta kostaldeari, haien bizi-baldintzak hiri-eremuetako baldintzekin parekatzeko eta horko biztanleria mantendu ahal izateko.

**9. Helmuga.** Lehen sektorea gazteagotzea, etorkizuneko berme gisa.

**10. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea, nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzeko.

**11. Helmuga.** Nekazaritza ekologikoa eta haren transformazio-industria sustatzea.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

27

Nekajaritzako elika gaiak eta jarduerak sustatu.

• **7. Jarduera.** Produktuen Bizi-zikloaren Azterketa (BZA) egiteko beharrezkoa den softwarea garatu da AZTIIn eta elikagaien enpresetara transferitu zaie; horri esker, prozesu industrialak sinplifikatzen dira, lehengai, energia eta ura aurrezten dira eta enpresen lehiakortasun eta jasangarritasunari laguntzen zaie.

• **8. Jarduera.** Minimis erregimenean sartutako laguntzak EAEko landa-eremua eta itsasaldea dinamizatzen dituzten ekitaldi soziokulturalak egiteko (200.000 €).

• **9. Jarduera.** "Itsasoratu" programa, gazteak arrantza-jardunean sartzen laguntzeko eta belaunaldi-erreibua bermatzeko (prestakuntza-egonaldiak itsasontzietan...).

• **10. Jarduera.** 2.200.000 €-ko laguntza funtsezko ikerketa-proiektuetarako, ikerketa industrialerako eta • garapen esperimenterako, I+G+b proiektuekin lotutako bideragarritasun teknikoko azterlanetarako eta antolakuntzaren alorreko berrikuntza-proiektuetarako.

• **11. Jarduera.** NEIKER –Tecnaliak ekoizpen ekologikoaren alorreko aurrerapenak aurkeztu dizkio nekazaritza-sektoreari, Arkauteko "Faro" Finkan: nekazaritza ekologikora pasatzeko prozesua nola egin eta nekazariak bidean aurkitzen dituzten zailtasunak ikasteko aukera, gure lurzoru eta klima-baldintzetarako egokienak diren laboreei buruzko informazioa emanez.

## Plangintza-tresnak

• **Gastronomia eta Elikadura Plan Estrategikoa 2017-2020:** Plana garatu eta indartu da, berrikuntzak gidatu dezan euskal elikagaien industria, Landa-garapenari lotuta egonda.

• **Ekintzailtza-estrategia elikagaien balio-katean eta Food BIND 4.0:** Ikasle eta gazte, elikagaien enpresa, chef, inbertitzaile eta oinarri teknologikoko start-up-etara zuzendutako Estrategia abiatzea, Food BIND 4.0 osatuz; era horretan, BIND 4.0 azaleratzaileak espezializazio berri bat du elikagaien alorrean.

• **Nekazaritza ekologikoaren plana:** Euskadiko ekoizpen ekologikoa 2020-2023 aldian sutatzeko plan berria lantzen ari da.

• **Landa-garapenaren OSOA programa:** 2018ko ekitaldiaren gauzatze-txostena bidali zaio Europako Batzordeari, Programaren Jarraipen Batzordeak berretsi eta gero. Txostenak dioenez, programazio-aldi osorako aurreikusitako aurrekontuaren % 48 gauzatu da, eta, hortaz, Euskadiko LGPren ehunekoa Espainiako eta Europako batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da.

## Ekimen Legegileak

• **Euskadiko Landaren eta Itsasertzaren Garapenari buruzko Legea:** 2019ko ekainean Euskadiko Landaren eta Itsasertzaren Garapenari buruzko Legearen Aurreproiektua aurkeztu da, orain indarrean dagoen apirilaren 8ko 10/1998 Legea aldatzeko; horri dagokionez, entzunaldi-tramitea egin da eta arauzko irizpen eta txostenak jaso dira.

# 3. HELBURUA



Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country



20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

10

JARDUERAK

9

PLANGINTZA-  
TRESNAK

11

PLANGINTZA-  
TRESNAK

5

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Bizi-itxaropena jaiotze-unean

(2018) 83,6 urte

• Gastu publiko sanitarioa biztanle bakoitzeko

(2019) 1.731 €

• Minbiziaren baheketa-programak barne hartzen duen biztanleriaren % (bularreko, koloneko eta umetoki-lepoko minbizia)

• Bularreko minbizia: (2018) % 77,2  
• Kolon eta ondoesteko minbizia: (2018) % 72,5  
• Umetoki-lepoko minbizia: Datua falta da

**12. Helmuga.** Osasun sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatzea.

64

Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

• **12. Jarduera.** Aplikazio berriak garatu dira Osakidetza Atariaren App-aren barruan, hala nola, Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroak odol-ematea sustatzeko proposatutakoa, eta Haur-gizentasunari Aurrea Hartzeko Programarako app bat, serious game teknologian oinarritua.

**13. Helmuga.** Pertsonen erantzunkidetasuna osasunaren zaintzan sustatzea.

66

Osasunaren zainketan pertsonen erantzunkidetasuna sustatu.

• **13. Jarduera.** Paziente bizia programa: 6.400 parte-hartzaile baino gehiago izan duten berdin arteko hezkuntza-tailerrak eman dituzten 300 monitoreak omentzeko jardunaldia; programaren ikastaroetan parte hartu duten pertsonen bizi izandako esperientziei buruzko "Kontakizunak" dokumentuaren argitalpena (35 kontakizun); eta programaren online prestakuntza-ekintzen birdiseinua.

**14. Helmuga.** Ekitatea osasun-arretan bermatzea, garrantzi berezia emanez genero-ikuspegiari, kolektibo kalteberenei eta arretaren kalitateari.

67

Ekitatea babestea osasun arretan, arreta berezia jarriz genero-ikuspegia eta giza talde ahulenetan.

• **14. Jarduera.** Genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida, osasungintzako profesionalen zuzendua; helburua da pertsonal sanitarioa horrelako kasuen detekzio goiztiarrean inplikatzeko eta esku-hartze profesionalerako irizpideak eta baliabideak eskaintzea, horren bidez arreta integratua eman ahal izateko arazo hori pairatzen duten emakumeei, arazoari aurre egiteko gai izan daitezen.

**15. helmuga.** Osasuna ingurune komunitarioan bultzatzea, jarduera fiskoa eta elikadura osasungarria sustatuz.

69

Osasuna sustatu ingurune komunitarioan.

• **15. Jarduera.** "Eskoletako jangeletan sukaldaritza erakargarria eta osasungarria izateko aholku praktikoak" izeneko Gida argitaratu da. Gidaren egileak eskoletako jangeletan eta cateringetan esperientzia zabala duten sukaldariak izan dira, Basque Culinary Centerren laguntzarekin. Neurria programa honetan dago sartuta: "Elikadura Osasungarriaren aldeko Ekimenak Euskadin".

**16. helmuga.** Osasun Publikoa bultzatzea, instituzioen arteko koordinazio eta lanikidetzarako formulak ezarri, eta koordinazio soziosanitarioa sustatzea.

70

Osasun Publikoa sustatu, eta zaintza-sistema integral bat abian jarri.

76

Koordinazio soziosanitarioa bultzatu.

• **16. Jarduera.** Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak onartu du Historia soziosanitarioaren garapena bultzatzeko Bulegoaren inplementazioa. Bulego honek 2020ko uztailera arte garatuko du bere zeregina, eta egoeraren eta administrazio publikoen (erkidego, foru eta udal mailakoak) arteko elkarreragingarritasunaren aukeren diagnostiko bat egin beharko du.

**17. Helmuğa.** Zainketa aringarrien arreta bultzatzea, eta baita gaixotasun kroniko, buru-gaixotasun eta gaixotasun arraroei zuzendutako arreta espezifikoak ere.

80

Zainketa aringarria bultzatu. Zainketa-aringarrien Plana zabaldu.

81

Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentaletan eta gaixotasun arraroei berriazko arreta eman.

• **17. Jarduera.** Innopal proiektua (berrikuntza zaintza aringarrietan) 5 ekintza-ildo ditu: zainketa-aringarrien premia-egoera garaiak identifikatzeko garrantzia; pazientearekiko eta familiarekiko informazioa eta komunikazioa; erreferentziatzeko profesionalen edo arretarekin zerikusia dutenen arteko koordinazioa; paziente/familiari laguntzea eta erabaki partekatuak hartzea; eta 24x7 zirkuituan laguntza-jarraitutasuna bermatzea.

**18. Helmuga.** HIESa eta bestelako gaixotasun infekziosoak prebenitzea.

73

HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa.

• **18. Jarduera.** “GIBa, STIa eta nahi ez den haurdunaldia prebenitzeko programaren” material pedagogikoa banatzea ikasturtearen hasieran (2019ko iraila): 9.923 gida gazteentzat, 437 gida irakasleentzat, sexu seguruari buruzko 333 DVD eta 13.451 preserbatibo. Eskera egin duten ikastetxeak 108 dira guztira.

**19. Helmuga.** Adikzioak prebenitzea eta tratatzea, gazteei zuzendutako ekimenak indartuz.

72

Atención especial a las personas con problemas de adicciones.

• **19. Jarduera.** Berdinen arteko prebentzioa barne hartzen duen bideo bat ekoiztea, cannabis kontsumitzearen arriskuez sentsibilizatzeko eta buru-osasunarekin lotutako arriskuaren inguruko pertzepzioa areagotzeko gazte eta nerabeen artean. Pilotatzea DBH, LH eta batxilergoko ikasleekin.

**20. Helmuga.** Osasun- eta kirurgia-arreta eskaintza herrialde pobreetatik edo gerran dauden herrialdeetatik datozen adingabeei, baita aldi baterako harrera-egoeran dauden adingabeei ere.

64

Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.

• **20. Jarduera.** EZ DA INFORMATU 20. HELMUGA HONETAN SARTUTAKO EZEIN JARDUERAZ.

**21. Helmuga.** Osasunaren alorreko ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea.

89

Osasun-arloko ikerkuntza eta berrikuntza handitzea. Jakintzaren kudeaketa sustatu bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetzaren ere.

• **21. Jarduera.** Euskal sistema sanitarioko profesionalen osatutako lantalde bat eratu da adimen lehiakor eta zaintza teknologikoko sare-sistema bat sortzeko; helburua da joerak ezagutzea eta erronka eta aukera berrien aurrean prest egotea.

## Plangintza-tresnak

- **Haurren hortz-arretarako programa:** Odontologoa aukeratzeko prozedura sinplifikatzen duen Dekretu berria erredaktatzeari ekin zaio; helburua da efizientzia handiagoa lortzea prestazioaren tramitazioan, eta jomugan jartzen den biztanle-taldeari (haurrak) programari atxikitzen laguntzea.
- **2017-2020 aldirako ildo estrategiko soziosanitarioak:** Euskadin suizidioa prebenitzeko Estrategia gidatuko duen Koordinazio eta Jarraipen Batzordea eratu da. Beraren eduki eta helburuak aurkeztu dira.
- **Plan onkologiko integrala:** Haurren eta Nerabeen Minbiziari Laguntzeko Koordinaziorako Batzorde Autonomikoa eratu da, saiakuntza kliniko beretan eta -hortaz- tratamendu beretan parte hartzen dela bermatzeko xedez.
- **Adikzioei buruzko EAEko Plana:** 2019ko urrian, VII. Adikzio Planaren lehenengo ebaluazio-txostena aurkeztu zen Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean (Planak 5 ardatz eta 50 ekintza ditu).
- **Haur Gizentasunari Aurrea Hartzeko Estrategia:** Haurren Gizentasunari Aurrea Hartzeko Estrategia aurkeztu zen Legebiltzarrean, SANO lemarekin; tresna honek ahalbidetuko du desafio honi heltzea, batez ere jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria bultzatzean zentratutako neurriak hartzearen bidez.

## Ekimen Legegileak

- **Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzeko proiektua:** Legea 2018ko ekainaren 7an onartu zen.\*

(\*EGUNERAKETA. Datu hau ez zen jaso 2018ko 2. Jarraipen txostenean)

# 4. HELBURUA



Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

8

PLANGINTZA-  
TRESNAK

5

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Eskola uztearen tasa % 8tik behera

(2019) % 6,7

• Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten  
30 eta 34 urte bitarteko biztanleen %

(2019) % 59,0

• Bizitzan zehar ikaskuntzan parte hartu duten  
helduen %

(2018) % 12,7

**22. Helmuga.** Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eta hezkuntzarako sarbidearen berdintasuna bermatzen duen kalitatezko eskola inklusibo, bidezko eta berritzailea sustatzea.

91

Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egin, bikaintasunerantz aurrera egiteko.

• **22. Jarduera.** Bikaintasunerantz 2019 deialdia (hezkuntza-bikaintasuna), curriculumak aberasteko proiektuak sustatzeko eta bultzatzeko. Deiladi honen helburu: ikasgelan metodologia aktiboak ezartzea eta ikasle guztiak detektatzeko, atenditzeko eta aberasteko jarduera-programak garatzea.

**23. Helmuga.** Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiagoak lortzea gure ikastetxeetan.

92

Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetzaren maila handiagoa lortu gure ikastetxeetan.

• **23. Jarduera.** Aniztasuna tratatzeko programak garatzea / Hamaika Esku 2019 Programa ikastetxe publikoetan.

**24. Helmuga.** Eleaniztasuna eskolan bultzatzea.

93

Eleaniztasuna bultzatu eskolan.

• **24. Jarduera.** Didaktika eta metodologiaren hobekuntzarako pilotatzea euskarazko hizkuntza-komunikazioaren konpetentzian, bai gizarte- eta hezkuntza-klusterraren bitartez eta bai irakasle, IRALE eta Berritzeguneen inplikazioaren bitartez.

**25. Helmuga.** Hezkuntza-azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea.

96

Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berri eta egokitu.

• **25. Jarduera.** Lankidetzaren hitzarmena Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) eta Hezkuntza Sailaren artean, jasagarritasun energetikoa honen eraikin eta instalazioetan sustatzeko.

**26. Helmuga.** Modernizazio teknologikoa irakaskuntzan bultzatzea.

97

Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatu.

• **26. Jarduera.** Hezkuntzaren eta kudeaketaren alorreko beharrak asetzeko material informatikoa hornitzeko, instalatzeko eta/edo konfiguratzeke Esparru-hitzarmena, bai ikastetxeentzat eta bai Hezkuntza Sailaren mendekoak diren laguntza-zentro publikoentzat (Berritzeguneak). 14,5 milioi euro.

**27. Helmuga.** Bizikidetzaren eta giza eskubideen alorreko hezkuntza sustatzea (indarkeriarik eza, dibertsitatea eta elkartzasuna).

166

Bake- eta bizikidetzaren kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

• **27. Jarduera.** Donostiako Kursoaren Erradikalizazio Biolentoaren Prebentzioari buruzko Nazioarteko Mintegi bat egin zen, eta bertan Uztartu Programa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak. Erradikalizazio biolentoa prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-programa bat da, Eusko Jaurlaritzak eta EITBK bizikidetzaren eta giza eskubideei buruz sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenaren baitan sartzen dena.



**28. Helmuga.** Enpresen beharrei eta pertsonen enplegagarritasunei erantzuten dien bikaintasunezko lanbide-heziketa finkatzea, laugarren iraultza industrialaren erronkak bereziki kontuan hartuta.

100

Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu.

102

Euskarazko prestakuntza-zikloak ezartzen aurrera egin eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu.

• **28. Jarduera.** Mugikortasun-ekintzak antolatzeke eta garatzeko laguntza ekonomikoetarako deialdia, Lanbide Heziketaren eremuan, Erasmus+ programaren baitan. 500.000 euro.

## Plangintza-tresnak

- **Hezkuntza-azpiegiturak Hobetzeko Plana:** Hezkuntza Azpiegiturak Hobetzeko Planaren aurkezpena: 250 jarduera 2019-2023 aldian, 318 milioi euroko aurrekontuarekin; inbertsioa % 6,7 igo da, aurreko Planaren aldean.
- **Ikasle Etorkinen Arretarako Plana, Kulturarteko Eskola Inklusibo baten esparruan:** Eskola Inklusiboaren Garapenerako 2019-2022 aldiko Esparru Plan berriaren garapena.
- **LH Euskal Plana:** Lanbide Heziketako V. Euskal Plana onartu da. Beraren helburua da LHko ikasleen prestakuntza bultzatzea, laugarren iraultza industrialaren aukera eta beharretara egokituz; 4.0. inguruneak, digitalizazioa eta konektibitatea, sistema adimendunak eta adimen artifiziala.
- **Adimen-gaitasun Handiko Ikasleei Hezkuntza-arreta emateko Plana:** Planaren aurkezpena, ikasle horiengana zuzendutako esku-hartzea sistematizatzeko eta hezkuntza-komunitatea kolektibo horren errealitateaz prestatzeko eta sentsibilizatzeko.
- **Euskal hezkuntza sistemaren II. Hezkidetzeta plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023:** Behin betiko dokumentua onartu eta aurkeztu zen martxoan.

## Ekimen Legegileak

- **Euskal Hezkuntza Legearen proiektua:** Prozedura 2019ko maiatzean hasi zen.

# 5. HELBURUA



Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

Agenda Euskadi  
Basque Country



20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

3

PLANGINTZA-  
TRESNAK

3

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Genero-berdintasunaren indizea

(2017) 71,7

• Batez besteko soldata. (genero-desberdintasuna soldatagatik)

Emakumeak: (2017) 24.166 €  
Gizonak: (2017) 31.619 €

• Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 urte bitarteko gizonen eta emakumeen % (genero-desberdintasuna prestakuntza mailan)

Emakumeak: (2019) % 60,2  
Gizonak: (2019) % 57,8

**29. Helmuga.** Balioen aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

145

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu, garapen jasagarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik.

• **29. Jarduera.** Emakundek antolatutako “Berdintasunerako Foroa”, erakunde publikoek eta pribatuek antolatutako hainbat ekintzen topagune gisa; helburua da beste aurrerapauso bat egitea gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean.

**30. Helmuga.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lanaren eremuan bultzatzea, soldata-diskriminazioaren aurka borrokatuz eta bizitza pertsonala, familiako eta lanekoa uztartzearen alde eginez.

146

Lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu.

• **30. Jarduera.** Soldata Arrakalaren aurkako sail arteko Mahaia eratzea eta abiatzea, eta emakumeen eta gizonen arteko soldata-berdintasunerako klausulak eta soldata-arrakalaren aurkako neurriak kontratazio publikoan txertatzeko aginduaren onarpena.

**31. Helmuga.** Gurasotasun positiboa eta erantzunkidetasuna sustatzea.

139

Familien eta hauren aldeko ituna.

• **31. Jarduera.** Gurasotasuna webgunea, familiekin, (gizarte, hezkuntza, sanitario, judizial etabarreko eremuarekin) lan egiten duten profesionalen komunitateari zuzendua; helburua da gurasotasun positiboaren praktikaren aldeko konpetentziak sortzea familiengan. Neska, mutil eta nerabeen garapen psikologiko osasagarria sustatzen duten aldagai gisa identifikatutako aldagaiak.

**32. Helmuga.** Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzea eta genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetzea. NBERen Populazioaren Funtzari laguntzea, Indarkeria pairatzen duten Emakume eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuen Programa Bateratuan parte hartzeko (UNFPA-NBE).

147

Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazi.

157

Genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta judiziala hobetu.

• **32. Jarduera.** “Zurekin” proiektu pilotua, akonpainamendu integrala eskaintzeko genero-indarkeriaren biktima diren emakumei zuzendutako eginbide judizialean. Helburuak honako hauek dira: biktimaren antsietatea arintzea; gertaera kudeatzeko beharrezkoak diren tresnak eskaintzea biktimari; biktimaren sarbidea kudeatzea; eta itxaronaldia sozializatzea eta sor litezkeen ustekabeak konpontzea. (249.250 €).

## Plangintza-tresnak

• **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana:** Lan eta Justizia Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018-2021eko Plana onartu da.

• **Soldata Arrakala Euskadin murrizteko Estrategia eta Ekintza Plan Operatiboa:** Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren Genero Berdintasunari buruzko Lantaldea eratu da. Beraren burua Emakundeko zuzendaria da, eta sindikatu, enpresa-erakunde eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak biltzen ditu.

• **2018-2022 aldirako Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana:** Familiaren Euskal Kontseiluak familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko 177/2010 dekretuaren aldaketa onartu zuen 2019ko ekainean, bi gurasoek jaiotza edo adopzioagatik har ditzaketen baimenak parekatuz.

## Ekimen Legegileak

• **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legaren bigarren aldaketaren Lege Aurreproiektua:** Lege Aurreproiektuaren 2. zirriborroaren aurkezpen publikoa egin zen, eta testua aholku-erakunde eta -organoei helarazi zitzairen, txosten eta irizpenak eskatzeko, gero Gobernu Kontseiluan onartzeari begira.



Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasagarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country **2030**

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK **3**

JARDUERAK **3**

PLANGINTZA-TRESNAK **2**

PLANGINTZA-TRESNAK **1**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

EKIMEN LEGEGILEAK **-**

## ADIERAZLEAK

• Ibaietako uraren kalitatea

## DATUAK

(2019) ONA % 54,2 \*

• Osoko ur-hornidura

(2017) % 100

• Uraren kostu unitarioa

(2016) 1,94 €/M<sup>3</sup>

\*Ebaluatutako ibaietako ur-masaren arabera.

**33. Helmuga.** Urari buruzko politika egoki bat bultzatzea, haren kalitatea bermatzeko eta alferrikako galeraren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatzeko.

**34. Helmuga.** Uraren hornidura, saneamendu eta arazketarako azpiegitura hidraulikoak garatzea eta gauzatzea, indarrean dagoen plangintzaren arabera. Uraren kanonaren bidez biltzen den diruaren % 5 hornidura eta saneamendurako lankidetzaren proiektuetara zuzentzea, garapen bidean dauden herrialdeetan.

**35. Helmuga.** 2015-2021 aldirako Plan Hidrologikoa berraztertzea.

46

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

- **33. Jarduera.** Ibaizabal estuarioko urak leheneratzeko egindako inbertsioak lagungarriak izan dira degradazioa gelditzeko, biodibertsitatea berreskuratzeko eta ekosistemako aisialdiz-erbitzuen hornidura segurtatzeko; horri dagokionez, kontuan hartu behar da zerbitzu horiek 3,5 milioi euroko irabazia sortzen dutela urtean, MARS proiektuaren baitan URAK (Uraren Euskal Agentzia) kofinantzatutako ikerketa-lanaren arabera. Proiektu horren ardatza da askotariko presioak jasaten dituzten ur-ekosistemen kudeaketa.
- **34. Jarduera.** Azken ekitaldietako ur-kanonaren bidez bildutako diruaren % 5 Euskadiren eta Erdialdeko Amerikaren arteko ur eta saneamenduaren arloko Erakunde arteko Lankidetzaren Programa triangularrera zuzentzen da. Programa horri dagokionez, aipatzekoa da oso arrakastatsua izaten ari dela lankidetzaren teknikoaren ikuspuntutik. 2019an jasotako Kanona 118,731.87 € euro dira.
- **35. Jarduera.** Euskadiko barneko arroen plangintzaren Hirugarren Zikloko Gai nagusien Behin-behineko Eskema jarri zen jendaurrean.

## Plangintza-tresnak

- **Plan Hidrologikoa 2021:** Trantsizio Ekologikorako Ministerioarekin, Kantauri eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin kolaboratzeko Hitzarmena aldatu, luzatu eta urriaren 1eko 40/2015 Legea egokitzeko Adenda sinatzeko Akordioa. Horren bitartez, jabari publiko hidraulikoko zenbait jarduera agintzen dira EAEko barneko arroetan.

# 7. HELBURUA



Energia eskuragarria,  
fidagarria, jasangarria eta  
moderno bermatzea  
guztiontzat

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

1

PLANGINTZA-  
TRESNAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Energia berriztagarrien kuota azken  
energia-kontsumo gordinan

(2018) % 16,8

• Intentsitate energetikoa (barne hartzen du kontsumoaren  
intentsitatea/BPG – azken intentsitate energetikoa-)

(2018) 71 tep/ M€

• Faktura energetikoa: kontsumitutako energiaren  
urteko kostua

(2017) 5.463 M€ korrante



**36. Helmuğa.** Gasaren alde egitea, trantsizio-energia gisa, energia berriztagarriak neurri handiagoan inplementatzeko bidean; eta nazioarteko konexio energetikoa sostengatzea gas eta elektrizitatearen horniduran.

**37. Helmuğa.** Teknologiaren eta enpresen garapena sostengatzea energia-iturri berriztagarri eta jasangarrien erabilera sustatzeko.

**38. Helmuğa.** Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko proiektuak bultzatzea.

**39. Helmuğa.** Gasolioa garraiotik gero eta neurri handiagoan ezabatzea, garraioaren gasifikazioa (lehorrekua eta itsasokoa) eta ibilgailu elektrikoaren erabilera bultzatuz.

19

Energia-politika lehiakorra eta jasangarria.

- **36. Jarduera.** Euskal portuek bat egin dute GNLa euren motorretarako erregai gisa erabiltzen dituzten itsasontzien belaunaldi berriei gas natural likidotua (GNL) hornitzeko gai den munduko sarearekin, gasa itsasontzi espezializatu batetik kargatzeko proba pilotua egin eta gero.
- **37. Jarduera.** Iberdrolak eta EEEK baterako inbertsioak adostu dituzte energia berriztagarrietan Euskadin.
- **38. Jarduera.** Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretua onartu da.
- **39. Jarduera.** Energiaren Euskal Erakundeak guztira 8,3 M€-ko laguntzak kudeatuko ditu garraioaren hobekuntza energetikorako. 6,2 milioi beraren deialdi propioari dagozkio (ibilgailu efiziente eta alternatiboetan inbertitzeko laguntzen programa, eta garraio eta mugikortasun efizientean inbertitzeko laguntzen programa) eta 2,1 milioi Ministerioak egindako eskaerari, hots, EEE arduratu dadila bere laguntzari buruzko Dekretutik ondorioztatzen den tramitazioaz.

## Plangintza-tresnak

- **2030eko Euskadiko Estrategia Energetikoa:** Euskadiko Agenda Energetikoa aurkeztu zen Energiaren Europako Astea, eta Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren tramitazioa hasi zen, berriztagarrien mapa definitzen duen plangintza-tresna bat eskura izateko xedez.

## Ekimen Legegileak

- **Herri Administrazioen Energia-iraunkortasunari buruzko Lege-proiektua:** 2019ko otsailean onartu zuen Legebiltzarrak, eta beraren arabera Herri Administrazioak % 60 murriztu beharko du energia-konsumoa 2050rako eta % 35 2030erako.
- **Mugikortasun Jasangarriaren Lege-proiektua:** jaso beharreko txosten eta irizpenak jaso ondoren, Gobernu Kontseiluak onartu du eta entzunaldi edo kontsulta tramitearen zain dago.

# 8. HELBURUA



Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country



20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

3

EKIMEN  
LEGEGILEAK

3

EKIMEN  
LEGEGILEAK

3

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Per capita BPG

(2018) 34.079 € \*

• Langabezia-tasa

(2019ko 4. Hiruhilekoa) % 9,09

• Batez besteko soldata

(2017) 28.204,49 €

\*EBk kalkulua egiteko metodologia berri bat ezarri du, eta, hortaz, zenbait aldageta gertatu dira aurretik jasotako zenbakietan eta behin-betiko zenbakietan. Metodologia berri horren arabera, 2019ko per capita BPGa 2020 urtean zehar ezaġutuko dugu.

**40. Helmuga.** Kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzea.

**2**

Enpleguaren 2017–2020 Plan Estrategikoa onartu.

• **40. Jarduera.** Enplegu Plan Estrategikoa 574 milioi euro zuzendu ditu kalitatezko enplegu inklusiboa sustatzen duten programa eta ekimenak garatzera. Plan horren inpaktua honela kuantifikatu daiteke: 34.143 enpleguk jaso dute pizgarria, 5.397 enpresak jaso dituzte pizgarriak eta 27.398 gaztek lortu dute lan-aukera bat.

**41. Helmuga.** Lanerako kualifikazio eta birziklapena bultzatzea, enpresekin, unibertsitateekin eta lanbide-heziketako ikastetxeekin lankidetzan estuan arituz, prestakuntza duala eta enpresa eta erakundetako praktikak bultzatuz.

**4**

Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu.

• **41. Jarduera.** Kualifikazio maila txikiko gazteak prestatzeko ekimen bat abiatu da, ikasleen garapen pertsonala eta integrazio sozio-profesionala sustatzeko xedez; horri lotuta, profesional-ziurtagiria eskuratzeko bidea eskaintzen da. Ekimen honetara zuzendutako zenbateko ekonomikoa 1.497.750,00 € dira.

**42. Helmuga.** Gazteen laneratzea bultzatzea eta ekintzailetzaren alde egitea.

**5**

Gazteen laneratzea sustatu.

**15**

Ekintzailetzari lagundu.

• **42. Jarduera.** 2019an 21,3 milioi euro bideratu dira gazteen kontratazioa sustatzera.

**43. Helmuga.** Gizarte-elkarrizketa eta langileen parte-hartzea euren enpresetan sustatzea, eta langile autonomoen arteko elkarlana ere bai.

**6**

Elkarrizketa soziala eta parte-hartzea sustatu.

• **43. Jarduera.** Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzeari buruzko urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretua onartu da. Elkarrizketa Sozialaren Mahaia hiruko organo bat da, sindikatu eta enpresa-erakunde nagusien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko topaketarako eta haien parte-hartzerako.

**44. Helmuga.** Enpresen Gizarte-erantzukizuna sustatzea.

**7**

Enpresen gizarte-erantzukizuna sustatu.

• **44. Jarduera.** Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen artean Enpresen Gizarte-erantzukizuna zabaltzeko eta ezartzeko laguntzen deialdia egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen 2019ko ekainaren 4ko AGINDUA.

**45. Helmuga.** Gizarte-ekonomiako enpresak bultzatzea.

**9**

Gizarte-ekonomiaren aldeko apustua.

• **45. Jarduera.** Gizarte-ekonomiako enpresei kudeatutako laguntzak. Guztira 4,21 milioi euro baino gehiago bideratu dira, eta onuradunak 700 baino gehiago izan dira (206 diru-laguntza enpresei eta 545 zuzeneko laguntza pertsonei).

**46. Helmuga.** Laneko osasuna, segurtasuna eta berdintasuna bultzatzea.

**10**

Osasuna, segurtasuna eta berdintasuna sustatu lanean.

• **46. Jarraiera.** OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen laneko segurtasun eta osasunari buruzko kanpaina berria aurkeztu da, lema honekin: "Segurtasuna eta osasuna dira lan duinaren oinarria".

### Plangintza-tresnak

- **Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Esparru Programa:** Proiektu Bereziak kudeatzeko Oinarritzko Eskuliburua argitaratu da: gizarteratze- zein laneratze-jarduera integralak edo enplegaeritasuna hobetzekoak, mota desberdineko esku-hartzeak biltzen dituztenak.
- **2020ko Erakunde arteko Ekintzailatza Plana:** EEP2020 Planaren 2018ko Balantzea bidali da Eusko Legebiltzarrera, eta hurrengo lau urteko Planaren oinarriak definitzeari ekin zaio (2021-2024rako plana).
- **2017-2020 Enplegu lan Estrategikoa:** Planaren helburu bat bete egin da, zeren XI. Legealdiko EEPetan 16.400 plaza baino gehiago atera baitira deialdietan.

### Ekimen Legegileak

- **Euskal Enplegu Publikoaren Lege-proiektua:** Gobernu Kontseiluan onartu eta Legebiltzarrera bidali da.
- **Kooperatiben Lege-proiektua:** 2019ko abenduaren 20an, Euskadiko kooperatiben 11/2019 Legea onartu zen.
- **Euskal Enplegu Sistemaren Lege-proiektua:** Prozedura hasi da eta Sailburuak onartu du.

# 9. HELBURUA



Azpiegitura erresilienteak  
eraikitzea, industrializazio inklusibo  
eta jasangarria bultzatzea eta  
berrikuntza sustatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

3

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

-

ADIERAZLEAK

DATUAK

• BPG industrialia

(2018) % 28,8

• I+Grako Gastua / BPG

(2018) % 1,85

• Pertsonen mugikortasuna lurreko garraio  
kolektiboko zerbitzu publikoetan

(2018) 262.450 pertsona

**47. Helmuga.** Garraio jasangarri multimodala sustatzea, arreta berezia zuzenduz trenbide-garraioari (abiadura handikoa, aldirikoa eta tranbia) eta plataforma logistikoei.

37

Euskadi, korapilo logistikoa. Euskal Y amaitu.

38

Trenbideko garraioa hobetu.

• **47. Jarduera.** Gasteizko Jundizko plataforma multimodalaren 1. fasearen eraikuntza-proiektua idazteko lana esleipena, eta tren-autobideko terminal bat jartzeko proiektu funtzionala lantzea.

**48. Helmuga.** Berrikuntzaren, fabrikazio adimenduna gidatzearen eta zerbitzu aurreratuak industrian txertatzearen alde egitea.

12

“Basque Industry 4.0” Euskal Industriaren aldeko Plan integrala.

• **48. Jarduera.** SPRIk 200 milioi euroko programak aurkeztu ditu I+G, 4.0 industria, zibersegurtasuna eta nazioartekotzea sustatzeko.

**49. Helmuga.** ETEak eta zailtasunak dituzten enpresen birmoldaketa sostengatzea.

13

ETEEi lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu.

• **49. Jarduera.** Zailtasunak dituzten enpresen 52 kausen jarraipena, 9.081 langile ukituta. 42 kasutan, 7.006 postu inplikaturik egonda, egoera ondo bideratu da jadanik.

**50. Helmuga.** Proiektu industrial estrategikoak sustatzea.

14

Proiektu industrial estrategikoak garatu.

• **50. Jarduera.** SPRI taldean integratutako Nazioartekotzearen Euskal Agentziak (Basque Trade & Investment), COFIDSEk eta Finantzen Euskal Institutuak finantza-tresna berri bat eratu dute, 100 euroko zuzkidurarekin, euskal enpresen kanpo-inbertsio produktibo eta komertzialeko ekimenak sostengatzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren erakundeek 50 milioi euro jarriko dituzte eta COFIDSEk beste 50 milioi.

**51. Helmuga.** Ikerkuntza, berrikuntza eta teknologiaren alde egitea, arreta berezia zuzenduz fabrikazio aurreratuari, energiari eta bio-zientzia-osasunari.

16

Ikerkuntza, Berrikuntza eta Teknologiaren aldeko apustua.

• **51. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak eta Gestampek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute automobilgintzarekin lotutako I+G+b jarduerak lau urtean garatzeko.

**52. Helmuga.** Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratuak garatzea.

17

Berrikuntza ez-teknologikoa eta enpresa-kudeaketa aurreratuak garatu.

• **52. Jarduera.** 2019ko otsailaren 6an, SPRIren Kontseiluak 2019-2020 Hazinnoaren lizitazio proiektuak onartu zituen. Hazinnova ekimen berri bat da, helburutzat duena berrikuntza ETEetan sustatzea; horretarako, aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu mikroproiektuak berrikuntza ez-teknologikoko arloetan gauzatzeko.



**53. Helmuga.** Informazioaren eta ezagutzaren gizartea sustatzea, teknologien aukerak aprobetxatzeko lehiakortasuna –zibersegurtasuna barne sartuta-, ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko.

18


Euskadi Europako erreferente bihurtu EIKTak aplikatzen, industriaren esparruan.

• **53. Jarduera.** Hitzarmen bat sinatu da Eusko Jaurlaritzak eta Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Euskadiko enpresa industriaren eraldaketa digitala bultzatzeko, bai Hada programaren bitartez (enpresa bakoitzaren heldutasun digitalaren maila ebaluatzea ahalbidetuko duen autodiagnostiko digital aurreraturako) eta bai Activa Industria 4.0 programaren bitartez (administrazio publikoen ekintzak etorkizunean 4.0. industriaren sustapenean orientatzeko). Hitzarmena onuragarria izan daiteke Euskadiko 50 enpresarentzat.

## Plangintza-tresnak

- **“Basque Industry 4.0” 2017–2020 aldirako Euskadiren Industrializazio Plana:** UNIDOK (NBEren erakunde industrialak) Basque Industry 4.0. aukeratu du garapen industrialerako gomendagarria den jardunbide gisa; estrategia honek sostengatzen ditu teknologiaren transferentzia manufaktura-enpresa industrialetara zuzentzen duten ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak.
- **Euskadiren Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (RIS 3):** I+G+b-ari laguntzeko programak bat datoz RIS3 Euskadi – Espezializazio Adimentsuaren Estrategiaren helburuekin, eta bete egiten dute I+G-ra zuzentzen den aurrekontu publikoa urtean % 5 handitzeko konpromisoa.
- **2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana:** Euskadiren 2030rako ZTB Planaren oinarri estrategiko eta ekonomikoak onartu dira. Plan horrek 20.000 milioi euroko inbertsioa ekarriko du berekin 10 urtean; horri lotuta, BRTA eratu da, hots Basque Reseach and Technology Alliance Partzuergo Zientifiko-Teknologikoa.

# 10. HELBURUA



Herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

2

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Desgaitasuna duten pertsonen enplegu-tasa

(2017) % 29,3

• Biztanleria immigrantearen enplegu-tasa

(2019) % 52,8

• Gini indizea

(2017) 26,7

**54. Helmuga.** Zahartze aktiboa eta belaunaldiarteko elkartasuna bultzatzea.

135

Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna.

• **54. jarduera.** Osasunaren Mundu Erakundeak “Euskadi Lagunkoia” sarearen adibidea nabarmendu du. Sare honek Euskal Autonomia Erkidegoko hirurogei udalerrri biltzen ditu adinekoren aldeko laguntasunaren inguruan, “zahartze aktiboa” sustatuz.

**55. Helmuga.** Pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoa optimizatzea, osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lotura estua sendotuz.

134

Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzaren estua finkatu.

• **55. Jarduera.** Gipuzkoako 400 familia-zaintzailek parte hartzen dute sostengua eskaintzen dien “OKencasa” proiektu pilotuan. Proiektuak testatuko du prestakuntza, antolakuntza-tresnak, laguntza psikosoziala eta zerbitzu erabilgarrien abantailak biltzen dituen esku-hartze honen eraginkortasuna. Helburua da zaintzaileak sostengatzea eta haien autozaintza eta -horri lotuta- eskaintzen duten arretaren kalitatea hobetzea.

**56. Helmuga.** Hirugarren Sektorre Soziala sostengatzea.

138

Hirugarren Sektorre Soziala babestu.

• **56. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak eta EITBk hitzarmen bat sinatu dute Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala sustatzeko.

**57. Helmuga.** Boluntarioen lana bultzatzea.

137

Boluntarioen lana bultzatu.

• **57. Jarduera.** Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek EAEn gauzatzen dituzten ingurumen-boluntariotzako proiektuak, diruz laguntzeko laguntzen deialdia egin da eta haien oinarri arautzaileak ezarri dira.

**58. Helmuga.** Immigrazioaren aldeko eta arrazakeria eta xenofobiaren kontrako Gizarte Ituna bultzatzea.

140

Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

• **58. Jarduera.** “Jaso nahi genukeena eskaintzea” Migrazioarako Euskal Itun Soziala aurkeztu da. Euskadik diskurtso konpartitu bat eta batasun irudi bat finkatzen ditu, migrazioaren erronkei modu positiboan erantzuteko eta demagogia populistari aurre egiteko.

**59. Helmuga.** Dibertsitate eta elkartasunaren kudeaketa positiboa, bizikidetzaren eta giza eskubideen alorrean sortzen diren erronka berrien aurrean (immigrazioa, pertsona errefuxiatuak, erlijio-aniztasuna...).

165

Aniztasuna eta elkartasuna positiboki kudeatu, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan sortzen diren erronken aurrean.

• **59. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak aurkeztu du Euskadira iristen diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko 2019ko Gertakizunetarako Plana.

**60. Helmuga.** Bakearen eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta.

166

Bake- eta bizikidetzaren kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

• **60. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) Etikasi Programa aurkeztu dute. Programaren helburua da “gerragatik markatutako europar hiriak bisitatzeko” aukera eskaintzea gazteei.

## Plangintza-tresnak

- **Euskal Gaztedi Lankidearen Programa:** Programa onuragarria izan da, zuzenean, Asia, Afrika eta Hegoamerikako 5.000 pertsonentzat. Bertan, zenbait GGKE 51 proiektutan parte hartu dute.
- **2017-2020 aldirako Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategia:** Lehenengo jarraipen-txostena egin da, balantze positiboarekin: 2018an aurrera egin da aurreikusitako eta lehenetsitako 12 jardueratan, eta aurreikusita ez zeuden 8 jarduera gauzatu dira.

## Ekimen Legegileak

- **Kultu-leku edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Lege-proiektua:** Gobernu Kontseiluak onartu du eta Legebiltzarrera bidali du.

# 11. HELBURUA



Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

2030

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

7

JARDUERAK

7

PLANGINTZA-  
TRESNAK

8

PLANGINTZA-  
TRESNAK

6

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Kriminalitate-tasa (lege-hauste penalak 1.000 biztanleko)

(2018) ‰ 41

• Hirietako PM 10 kontzentrazioa

(2018) 15,6 µgr/m<sup>3</sup>

• Hiri-hondakinen birziklapen-tasa

(2018) 168 kg/pertsona

**61. Helmuga.** Lurralde-estrategia jasangarri, sozial, adimendun, orekatu eta parte-hartzailea sustatzea.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

• **61. Jarduera.** Elkar ulertze Memorandum (MOU) bat sinatu da Nazio Batuen Erakundearen giza kokaguneetarako Programarekin (NBE Habitata).

Lankidetzaz-esparru horretan, Hiri Agenda Berriaren bazkideen gaitasunak indartzeko hitzarmen bat sinatzen da eta 212.000 €-ko diru-laguntza bat ematen da Euskadiko Hiri Agenda -Bultzatu 2050- inplementatzen laguntzeko.

**62. Helmuga.** PHiriko zaharberritze, biziberritze eta berriztapena sustatzea.

48

Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea.

• **62. Jarduera.** Hiri-kalteberatasunaren inbentarioaren berrikuspena amaitzen da, Euskadiko Eraikinen Birgaitze Energetikoaren Estrategian ezarritako adierazleak txertatuta, eta bi europar proiektu onartzen dira:

1. HIROSS4all, OPENGELA Proiektu gisa identifikatuta. Hurbiltasuneko kudeaketa eredu integral berri bat da, Euskadiko eraikin guztien birgaitze sakona ahalbidetzera zuzendua.
2. AGREE, 40 urtetik gorako etxebizitza-erakinen pribatuen birgaitze energetikoa sustatzen duena 2022. urtera arte.

**63. Helmuga.** Etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea.

142

Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatu.

• **63. Jarduera.** Eusko Jaurlaritza babes ofizialeko 4848 etxebizitza eraikitzen hasi da, eta Kristal Eraikinera zabaldu du Bilboko auzitegi-ekipamendua.

**64. Helmuga.** Garraio publiko jasangarri eta intermodala bultzatzea.

33

Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatu.

34

Mugikortasun jasangarriaren estrategia.

• **64. Jarduera.** Elkarrengarritasunaren Master Planaren 2. fasearen hasiera. Oraingo garraio-txartelen (BAT-BARIK-MUGI) elkarrengarritasuna inplementatzera zuzendutako 3 pilotuak euskal hiriburuetan amaitu ondoren, AGEk berretsi zuen Master Planaren 2. fasearen hasiera. Ezarritako lehentasuna da erabiltzaileen profilak Euskadiko garraio publiko osoan homogeneizatzea eta garraio-txartelen birtualizazioa garatzea.

**65. Helmuga.** Kultura eta kultura-ondarea dinamizatze eta sustatzeko estrategia bat bultzatzea.

108

Kultura dinamizatze eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira.

113

Ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaldu, bai eta haien eragin soziala ere.

• **65. Jarduera.** Kulturaren Euskal Behatokiak Euskal Herriko kulturaren kontsumoa eta euskal kultura neurtu eta aztertzen duen txosten bat egin eta argitaratu du. Txostenak azpimarratzen duenez, euskaldunen % 56k euskarazko kultura-jardueraz gozatzen du.



**66. Helmuga.** Euskararen erabilera sustatzea.

**116**

Euskararen gizarte-hazkundera finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza-gaitasuna hobetuz.

**117**

Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzionaletan zabaldu euskararen erabilpena.

• **66. Jarduera.** HABEK material didaktikoak sortu ditu [Ikasbil](#)en HEOCen (Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum) maila guztietarako, urtez urte; jadanik 30.000 erabiltzaile daude, eta urtean 850.000 bisita inguru jasotzen dira. Orobat, autoikaskuntzarako ["Ikaste"](#) plataforma kudeatzen jarraitu du.

**67. Helmuga.** Larrialdien aurreko prebentzio- eta alerta-sistema indartzea, baita herritarren autobabesa ere.

**153**

Larrialdiak prebenitzeko eta ohartarazteko sistema eta herritarren autobabesa indartu.

• **67. Jarduera.** "Abisuak nahierara" deritzan zerbitzu bat jarri da herritarren eskura, Euskalmeten bitartez: babes zibilarekin lotutako tresna informatibo bat da, nahi duenari meteorologia txarrari buruzko iragarpenen datu konkretuak eskaintzen dizkiona posta elektronikoaren bidez.

## Plangintza-tresnak

- **2040rako Lurralde Antolamenduko Gidalerroak:** LAG berriak onartu dira, berrazterketa-prozesua bukatuta. Horren bidez, lurraldearen plangintzaren eta lurzorua erabileraren irizpideak egokitzen dira errealitate eta ikuspegi berrietara, hala nola klima-aldaketa edo genero-ikuspegira.
- **Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda:** Gobernu Kontseiluak Bultzatu 2050-Euskadiko Hiri Agendaren berri jaso du eta haren aurrerapenak aurkeztu dira Helsinki eta Euskal Hiria Batzarrean.
- **Eraikita dagoen Parkean esku hartzeko Epe Luzerako estrategia:** 17 euskal erakunde atxiki zaizkio arkitektura eta hirigintzari buruzko Davosko 2019ko Adierazpenari; Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak bultzatutako ekimen bat da, "planteamendu berri eta egokigarri bat" errebindikatzen duena eraikitako ingurunean, ikuspegi kulturala eta gizarte-eta ingurumen-jasangarritasuna ardatz nagusitzat hartuta.
- **Jasangarritasunerako Udalerrien Sarearen 2020rako Plan Estrategikoa:** Udalsarea 21: Udalsarea 21ek GJHei egindako ekarpena jasotzen duen dokumentua prestatu ondoren – hor aztertzen da zer-nolako ekarpena egin dioten tokiko jasangarritasun-politikek Garapen Jasangarriaren Helburuei-, Udalsarea2030en irudi grafikoa eta izena aldatu da.
- **2017-2020 aldirako Euskararen Agenda Estrategikoa:** bi hizkuntza ofizialen ahozko eta idatzizko erabilera Euskadiko toki-erakundeetan arautzen duen Dekretu berria onartu da.
- **Euskal Kultura auzolanean 2020 - kulturaren Euskal Plana:** 2019-2022 aldirako Kultura Planaren Txostena aurkeztu da Eusko Legebiltzarrean. Hor finkatzen da Eusko Jaurlaritzaren kultura-estrategia 2022rako.

## Ekimen Legegileak

- **Euskal Kultura Ondarearen Lege-proiektua:** Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea onartu da.
- **Mugikortasun Jasangarriaren Lege-proiektua:** Gobernu Kontseiluan onartu eta Legebiltzarrerara bidali da.

# 12. HELBURUA



Kontsumo eta ekoizpen modalitate jasangarriak bermatzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Azken energia-kontsumoa

(2018) % 91

• Materialen etxeko kontsumoa

(2017) 12,0 t

• Biztanle bakoitzeko sortutako hiri-hondakinen ratioa

(2018) 168 kg/pertsona

**68. Helmuga.** Ekonomia zirkularraren alde egitea.

**42**

Ekonomia zirkularra bultzatu.

• **68. Jarduera.** Kontsumo arduratsuari eta ekonomia zirkularrari buruzko kanpaina bat abiatzen da. “Keinu txikien iraultza” lemapean, ekimenak herritarrak kontzientziatu nahi ditu eta kontsumo-ohiturak aldatu, egunero erabiltzen ditugun objektuen murrizketa, berrerabilpena, konponketa eta birziklapena bultzatzeko.

**69. Helmuga.** Ingurumen aldetik eredugarria den administrazio publikoaren konfigurazioan aurrera egitea.

**45**

Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatu.

• **69. Jarduera.** 2019ko lehenengo hiruhilekoan 2020rako Ingurumen Esparru Programaren 6 Funtsezko Proiektu bultzatu dira. Horri dagokionez, azpimarratzekoak dira honako bi hauetan egindako aurrerapenak:

- Lurralde osasungarria: Ekimena: “Osasunaren eta Ingurumenaren determinatzaileak”.
- Elikadura zirkularra: “Elikadura Zirkularraren jardunbide egokiak” ekimena.

**70. Helmuga.** Informazio azkar eta eraginkorra eskaintzea kontsumitzaileak konprometituagoak eta arduratsuagoak izan daitezen

**32**

Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua.

• **70. Jarduera.** Kontsumobidek bere Zerbitzuen Karta aurkeztu du, kontsumitzaile eta erabiltzaileekin hartutako kalitate- eta gardentasun-konpromiso bezala.

**71. Helmuga.** Turismo jasangarriaren bikaintasuna sustatzea.

**28**

Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu euskal turismo jardueran.

• **71. Jarduera.** Eskaintza eguneratzea, SEO eta SEM posizionamendua hobetzea, eta Euskadiko esperientzia-eskaintzaren merkaturatzea sustatzeko kanpainak dinamizatzea, bai Euskadiko turismoaren atariaren bitartez eta bai merkaturatzearen landingaren bitartez.

## Plangintza-tresnak

- **2020ko Euskadiren Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Plana:** Konpostatze komunitarioko instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezarri dira.
- **2030erako Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia:** Ekonomia zirkularraren diagnostikoa egin da eta Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategiaren erredakzioa bukatu da.
- **2020erako Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa:** Bizi-zikloaren kontzeptua kontratazio publikoan erabiltzeko proiektu pilotua sortu da, eta baita Eusko Jaurlaritzako erosketa eta kontratazio berdearen programaren talde eragilea ere.
- **2017-2020 aldirako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Plana:** Euskadiko Turismoaren Mahaia –Eusko Jaurlaritzaren aldetik turismoaren alorrean eskumena duen Sailaren aholkularitza-organoa- sortzeko Dekretua aldatu da, ordezkari-tza soziala Mahaian txertatuz.

# 13. HELBURUA



Neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

Agenda Euskadi  
Basque Country



20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

5

JARDUERAK

5

PLANGINTZA-  
TRESNAK

1

PLANGINTZA-  
TRESNAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Berotegi-efektuko gasen emisioa % 20 murriztea (Oinarrizko urtea 1990)

(2018) % 91,1

• CO2 baliokidearen kontsumoa kW/ordu bakoitzeko

(2017) 296 gr CO2/kWh

• Airearen kalitatearen indizea

(2016) % 99,0

**72. Helmuga.** Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatzea.

**73. Helmuga.** Aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa sustatzea.

**74. Helmuga.** Energia berriztagarrien erabilera bultzatzea.

**75. Helmuga.** Eraikuntza jasangarria, ekodiseinuaren sustapena eta garraio publikoaren erabilera bultzatzea.

**76. Helmuga.** Klima-aldaketari egokitzeko ikuspegia integratzea Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak onesteko prozesuan eta lurralde- eta hiri-plangintzako tresnetan.

41

Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra bultzatu.

- **72. Jarduera.** Urban Klima 2050ean integratutako LIFE programaren lidergoa. Euskadiren datorren urteetako klima-ekintzaren proiektu nagusitzat hartzen da, eta berari esker 19,8 milioi euro inbertituko dira zuzenean klima-ekintzetan, horien % 51 Europar Batasunak finantzatuta.
- **73. Jarduera.** ADAPYR proiektuan parte hartzea. Estatuko eta nazioarteko bazkide batzuen arteko lankidetzaren proiektu bat da, helburutzat duena Pirinioen eremuan klima-aldaketari egokitzen laguntzea.
- **74. Jarduera.** Klima-aldaketa, Biodibertsitate eta Geodibertsitate Estrategiaren bi urtetik behingo Jarraipen txostenak egin dira.
- **75. Jarduera.** ICCA2019 (International Collaboration on Climate Action) ekitaldian parte hartu da maiatzean, Heidelbergen (Baden-Württemberg).
- **76. Jarduera.** UNFCCCren COP25ean parte hartu da (alderdien hogeita bosgarren konferentzia), Madrilan.


## Plangintza-tresnak

- **Klima 2050 - 2050erako Klima-aldaketaren Estrategia:** Lehendakariaren adierazpen instituzionala klima-aldaketaren larrialdiaren aurrean, eta Change the Change - Klima-aldaketari buruzko Nazioarteko Konferentzia Donostian.

## Ekimen Legegileak

- **Euskadiko Klima-aldaketaren lege-proiektua:** Gobernu Kontseiluan onartu eta Legebiltzarrera bidali da.

# 14. HELBURUA



Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

2

PLANGINTZA-  
TRESNAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Azaleko ur masen kalitatea

(2019) % 54,2

• Bainu-eremuetako uraren kalitatea

(2017) % 85

• Ibaietako uraren kalitatea

(2019) ONA % 52,0 \*

\*Ebaluatutako ibaietako ur-masaren arabera.

**77. Helmuga.** Arrantza jasangarri eta lehiakorra sustatzea.

**78. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea arrantza azpisektorean.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

• **77. Jarduera.** Euskal kostaldearen kalteberatasuna klima-aldaketaren aurrean: "Kostegoki". Klima-arrisku arrantza sektorialaren azterketa. Orobat, sektore hori lehenesten da, beste batzuen gainetik, eta arriskua moteltzeko implementatu litezkeen neurrien zerranda prestatzen da.

• **78. Jarduera.** Euskadik lankidetzeta eskaini dio Europako Batzordeari Blue Economy estrategia definitzeko eta garatzeko.

**79. Helmuga.** Lehorretik itsasora doazen isurketen kudeaketa jasangarria.

46

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

• **79. Jarduera.** URA-Uraren Euskal Agentziak Sukarrietan eraikitako ponpaketa-estazioa hasi da Sukarrietako eta Portuondoko kanpineko hondakin-urak Lamiarango araztegiara bideratzen, bertan behar den bezala arazteko itsasora isuri aurretik.

**80. Helmuga.** Kostaldea babestea lurzorua erabilerak arautzearen bidez.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

• **80. Jarduera.** Paisaia babesteko eta leheneratzeko planak egiteko laguntzen Agindua plazaratu da, udalerriei zuzendua, 300.000 €-ko zenbatekoarekin.

## Plangintza-tresnak

• **Euskadiko 2020rako arrantza eta akuikultura plana:** Euskadik lankidetzeta eskaini dio Europako Batzordeari Blue Economy Estrategia definitzeko eta garatzeko; Conférence des Régions Périphériques Maritimes-en (CPRM) posizio komunaren erredakzioan kolaboratu da, eta baita Arrantzaren Lantaldean ere. Azken horretan eskatu da Funtsa eskualdeka antolatzea 2020-2027 aldirako.

# 15. HELBURUA



Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzea, eta biodibertsitatearen galera gelditzea: lehorreko ekosistemak eta biodibertsitatearen kudeaketa jasangarria

Agenda Euskadi  
Basque Country



20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

6

JARDUERAK

6

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

3

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

EKIMEN  
LEGEGILEAK

1

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako berreskuratu diren lurzoruen azalera

(2017) % 11,3 ha

• Zuhaitzez estalitako natura-guneen dentsitatea

(2016) % 67,29 ha



**81. Helmuga.** Lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria sustatzea lurzorua erabilerak arautzearen bidez.

47

Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta estrategia.

• **81. Jarduera.** Lurraldearen antolamendurako gidalerro (LAG) berriak onartu dira, zenbait errealitate antolamenduan txertatuz, hala nola klima-aldaketa edo genero-ikuspegia.

**82. Helmuga.** Ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarrek ingurumenaren babes eta kontserbazioan duten erantzunkidetasunean aurrera eginez.

**83. Helmuga.** Biodibertsitatea babestea.

**84. Helmuga.** Europako gune babestuen Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioen antolamendu-planak garatzea.

46

Ingurune naturalaren kalitatea hobetu.

• **82. Jarduera.** Ekoetxea Sareko ekipamenduek 568 ekintza garatu dituzte ingurumen-sentsibilizazio eta -hezkuntzaren alorrean, herritarrek jasangarritasunarekin eta klima-aldaketari aurre egiteko ekintzarekin duten konpromisoa bultzatzeko. Ekoetxeek 100.700 bisitari izan dituzte 2019an, eta horien % 25 eskoletako ikasleak izan dira.

• **83. Jarduera.** BID-REX (Interreg-Europe) proiektua, biodibertsitatearen datu esanguratsuen eta naturaren kontserbazioari buruzko erabakiak hartzeko prozesuen arteko lotura sortzeko/indartzeko. Ekintza-plana inplementatu da eta Biodibertsitateari buruzko ezagutza sortzeko proiektuen gida prestatu da.

• **84. Jarduera.** Hegazti eta Habitaten Zuzentarauak eta Natura 2000 Sarea hedatzeko jarduerak, zenbait material, ikastaro eta forotan: bideoak prestatzea; UPV/EHuren Biodibertsitate eta ekosistemen leheneratze Masterra; Natura Parkeen Patronatuak; mintegiak, eta abar.

**85. Helmuga.** Nekazaritza ekologikoa sustatzea.

**86. Helmuga.** Berrikuntza eta ikerkuntza sustatzea nekazaritza azpisektorean.

26

Euskadiko lehen sektorea garatu.

• **85. Jarduera.** NEIKERek labore ekologikoen arloko aurrerapenak aurkeztu dizkio nekazaritza sektoreari.

• **86. Jarduera.** Irtenbide teknologiko sektorialak bultzatu dira (zaintza teknologikoa eta sektoreko eta sektorearentzako irtenbideak) HAZI, AZTI eta NEIKERetik. Consumer Lab, Geroa Gaur, proiektuen garapena ("Esnetarako ardien elikadura optimizatzea eta Jatorri Izendapeneko Europako araudira egokitzea"; "Amu komunitarioa, tokiko lehengaiaren oinarrituta"; "Zehaztapeneko nekazaritza"; "Erabakiak hartzeko tresnak garatzea", "Abereentzako mendian GPSa erabiltzea; Fauna basati-abeltzaintza lotura", eta abar).

## Plangintza-tresnak

• **Natura 2000 Sarea 2012-2017:** Lehentasunezko Ekintza Esparrua berraztertzea eta hobetzea Natura 2000 sarearen finantziatorako.


• **2030erako Biodibertsitate Estrategia:** Estrategiaren aurrerapenari buruzko txostena prestatu da.

• **Lurzoru Kutsatuak Kudeatzeko eta Lehengoratzeko Plana:** Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen abenduaren 26ko Dekretua onartu da.

## Ekimen Legegileak

• **Ondare Naturala Kontserbatzeko Lege-proiektua, 2018-06-06:** Gobernu Kontseiluan onartu da eta Legebiltzarrera bidali da.

# 16. HELBURUA



Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta euren jarduerak eta kontuak azaltzen dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

10

JARDUERAK

10

PLANGINTZA-  
TRESNAK

8

PLANGINTZA-  
TRESNAK

5

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

EKIMEN  
LEGEGILEAK

2

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Herrialdeko Gobernuarekiko konfiantza

(2019) % 77

• Nazioarteko gardentasun-indizea

(2016) 100,0

• Herrialdeko demokraziaren  
funtzionamenduari buruzko iritzia

(2019) % 59

**87. Helmuga.** Bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea, giza eskubideen errespetua eta pluraltasuna oinarritzat hartuta.

166

Bake- eta bizikidetzakultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta.

• **87. Jarduera.** Bizikidetzak eta giza eskubideei buruzko proiektuak gauzatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Udalerriei eta gainerako Toki-Erakundeei zuzendutako laguntzak.

**88. Helmuga.** Administrazio Publiko ireki, parte-hartzaile, garden eta eraginkorra bultzatzea.

60

Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.

• **88. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak Galesko ordezkari batekin bildu da elkarreragingarritasunari, datuen trukeari eta herritarrentzako web zerbitzuei buruz hitz egiteko.

**89. Helmuga.** Kargu publikoen osotasuna segurtatzea.

57

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen integritate etikoa ziurtatu.

• **89. Jarduera.** Etika publikoari buruzko prestakuntza kargudun publikoentzat, administrazio eta gobernu ona lortzeko. Etika eta Jokabide Kodeari atxikitako pertsonei zuzendutako jardunaldi zikloa.

**90. Helmuga.** Dibertsitate kulturalak eta arrazakeria zein xenofobiaren prebentzioak dituzten balio positiboak sentsibilizatzeko kanpainak bultzatzea.

140

Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka.

• **90. Jarduera.** Ituna aurkeztu zaio Elkarrizketa Zibilerako Mahaiari. Mahaian parte hartzen duten sareek Itunarekiko atxikimendua jakinarazi diote Eusko Jaurlaritzari.

**91. Helmuga.** Segurtasun- eta polizia-zerbitzu publiko eraginkor eta hurbila sustatzea.

148

Segurtasun zerbitzuak eta Ertzaintza herritarrengana gerturatzen jarraitu.

• **91. Jarduera.** Bilera Elkarteekin desgaitasun fisiko eta/edo organikoak duten pertsonen kolektiboak segurtasunaren alorrean gauzatu dituen ekimenak aztertzeko.

**92. Helmuga.** Sistema judizial moderno, azkar eta eraginkorraren alde egitea, eta adingabeentzako arreta judiziala garatzea.

155

Sistema judizial moderno, azkarra eta eraginkorra.

158

Adingabeentzako arreta judiziala garatu.

• **92. Jarduera.** Kudeaketa prozesalaren sistema guztiak aztertu dira, bai Ministerioarenak eta bai eskumenak dituzten Autonomia Erkidegoenak. Administrazio Judizial Elektronikoaren Batzorde Tekniko Estatalean parte hartzen ari da modu aktiboan –foro horretan definitzen dira elkarreragingarritasunaren irizpideak-, eta baita Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalen ere.

**93. Helmuga.** Gatazkak konpontzeko sistema alternatiboak bultzatzea.

159

Gatazkak ebazteko sistema alternatiboak bultzatu.

• **93. Jarduera.** 2019ko maiatzaren 30ean argitaratu da Justizia Errestauratiboaren Erakunde arteko Koordinaziorako Protokoloa (zigor arlokoa); berau funtsezko tresna bat da zerbitzu berria aurrera eramateko.

**94. Helmuga.** Indarkeriaren amaiera ordenatua sustatzea, ETAREN armagabetze eta desegitea barne sartuta.

**161**

Indarkeriaren amaiera ordenatua.

• **94. Jarduera.** Eusko Jaurlaritzak aurkeztu du “Eusko Jaurlaritzak ETAREN armagabetzean eta desegitean izandako eginkizunaren deskribapena eta balorazioa” izeneko txostena.

**95. Helmuga.** Biktima guztiei zuzendutako egia-, justizia-, erreparazio- eta elkartasun-politikak ezartzea.

**162**

Egia-, justizia- eta erreparazio- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktima guztiekin.

• **95. Jarduera.** Ekitaldia Donostian, Terrorismoaren Biktimen Europako Egunaren kariaz, “Fue injusto. Gizartea eta biktimak elkarrekin oraina eta etorkizuna eraikiz” lemapean.

**96. Helmuga.** Laguntza ematea pertsona desagertuen ingurukoe.

**160**

Desagertutako pertsonen inguruneari lagundu.

• **96. Jarduera.** 2017ko apirilaren 6an Justizia Ministerioak eta Espainiako Gurutze Gorriak arlo humanitarioan eta gorpuen identifikazioaren arloan sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren atxikimendu eta onarpen Protokoloa sinatu da.

## Plangintza-tresnak

- **Bizikidetzak eta Giza Eskubideen Plana:** Urteko jarraipen-txostena eta 2019ko erronka nagusiak onartu dira.
- **2020rako Segurtasun Publikoko Plan Orokorra:** Euskadiko Segurtasun Publikoaren Kontseiluaren urteko bilera, honako gai hauek aztertzeko: plana, delinkuentziari buruzko estatistikak, eta Judikatura, Fiskaltza eta Ertzaintzaren Koordinaziorako Lantaldearen bileran jorratutako gaiak. Euskadiko Poliziaren Legearen erreformako aldaketak eman ziren ezagutzera.
- **Justizia Administrazio Elektronikoa Bultzatzeko Plana:** Justizia.eus atariko aplikazio informatikoen kudeaketa eta funtzionamendua hobetzea, EJIekin batera.
- **Herritartasunaren, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren arloko Ekintza Plana:** Euskadira iristen diren migratzaileei arreta humanitaria emateko 2019ko gertakizunetarako Plana aurkeztu da, eta migrazioaren arloko mahai bat eratu da, Estatuaren Administrazioarekin batera, migrazio eta asiloaren alorreko harrera- eta integrazio-prozesuak hobetzeko.
- **Giza Eskubideen defentsarien Babeserako Euskal Programa:** Erakunde arteko koordinaziorako protokoloa Euskadiko Justizia Errestauratiboko Zerbitzuarentzat (Zigor-jurisdikzioa).

## Ekimen Legegileak

- **Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Partaidetzaren eta Gobernu Onaren Lege-proiektua:** Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Lege-proiektua” Legebiltzarrerara bidali da eta bertan onartu da. Proiektu horrek prozesua desburokratizatzen du eta “Gobernantza Onaren” betekizun berriak txertatzen ditu: plangintza, ebaluazioa, gardentasuna eta herritarren partaidetza.
- **Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzko uztailaren 28ko 12/2016 Legea aldatzen duen apirilaren 4ko 5/2019 Legea onartu da.**

# 17. HELBURUA



Garapen Jasangarrirako Mundu  
Aliantza inplementatzeko eta  
biziberritzeko tresnak sendotzea

Agenda Euskadi  
Basque Country

20  
30

2019. URTEAN  
GAUZATUTAKO ESKU-HARTZE  
ESANGURATSUENAK

HELMUGAK

4

JARDUERAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

4

PLANGINTZA-  
TRESNAK

3

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

EKIMEN  
LEGEGILEAK

—

ADIERAZLEAK

DATUAK

• Giza Garapenaren Indizea

(2019) 0,926

• Euskadiko Gazteak Lankidetzan programan parte hartzen duten gazteak

(2018) 99 gazte  
(81 emakume eta 18 gizon)

• Garapenerako lankidetzaren laguntzaren % / BPG

DATUA FALTA DA

**97. Helmuga.** Basque Country nazioartekotze-estrategia globala garatzea, lankidetzaren publiko-privatuaren bidez.

21

Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean.

• **97. Jarduera.** Sakondu programa berria, sostengu publikoa duten eta EGE-GJHeekin bat datozen nazioartekotze-proiektuak haztatzeko irizpideak txertatzen dituen.

**98. Helmuga.** Garapenerako lankidetzaren politika sendotzea eta lankidetzarako tresnak estrategia espezifikoaren bidez eguneratzea.

168

Garapenerako lankidetzaren buruzko politika finkatu, eta euskal ankidetzaren eredu gaurkotu.

169

Ebaluazio-kultura sustatu, lankidetzaren dagokionez.

• **98. Jarduera.** Ekintza Humanitarioaren arloko esku-hartzeak arautzen dituen dekretu berria onartu da; bertan, gatazken eta beste indarkeria-egoera batzuen ondorio diren krisiek kalte egindako biztanleriaren babesa lehenesten da, eta finantzatu daitezkeen bi esku-hartze modalitateak mantentzen dira.

**99. Helmuga.** Garapenerako lankidetzaren politika publikoaren koherentzia eta instituzioen arteko koordinazioa bultzatzea.

171

Lankidetzaren politika koherenteagoa, koordinatuagoa eta partaidetzazkoagoa izan.

• **99. Jarduera.** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan garapenerako politiken koherentziari buruzko lantalde bat abiatu da, helburu honekin: (i) koherentzia-printzipioaren betetze mailari buruzko urteko txostena egitea; (ii) hausnartzea; eta (iii) eragile publikoari aholkua ematea garapenerako politiken koherentzia bultzatzeko.

**100. Helmuga.** Lankidetzaren politika publikoari lotutako ekimen estrategikoak abiatzeko aliantzen garapena bultzatzea estatuan, europar eta nazioartean.

170

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren gaitasunak indartzea Garapenerako lankidetzaren politikaren diseinu eta kudeaketarako.

• **100. Jarduera.** Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Euskal Fondoaren parte-hartzea finkatu da PLATFORMAN –garapen jasangarriko nazioarteko lankidetzarekin konprometitu dauden tokiko eta eskualdeetako gobernuen koalizio paneuroparra-, Euskadi Basque Country gisa.

## Plangintza-tresnak

• **Euskadi Basque Country 2020 Nazioartekotzeko Estrategia:** 1. Euskadi Basque Country Eguna egin zen, Herrialdeko marka eta euskal expertisea sustatzeko, euskal gizartearen balio eta ezaugarri positiboak lankidetzaren publiko-privatuen proiektatuz; eta Euskadi Basque Country Lagunaren Dekretua prestatu da.

• **2018-2023 aldirako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Ekintza Humanitarioko Estrategia:** Ekintza Humanitarioaren esku-hartzeak Estrategiaren ildotik arautzen dituen dekretu berria onartu da.

• **Euskadi Basque Country 2030 Agenda:** 2017 eta 2018ko jarraipen-txostenak prestatu dira.

**EUSKADI**  
**BASQUE COUNTRY**

